

HISTORIA ESKUBIDE GISA: HERMILIO OLORITZ (1854-1919)

Edizio honetan Hermilio Oloritzen ondorengo liburuak daude bilduta: *Resumen histórico del antiguo Reino de Navarra* (Iruñea: Probintziako Inprimategia, V. Cantera arduradun, 1887), *Fundamento y defensa de los fueros* (Iruñea: Román Velandia Inprimategia, 1880) eta *La cuestión foral: reseña de los principales acontecimientos ocurridos desde mayo de 1893 á julio de 1894*, (Iruñea: Probintziako Inprimategia, 1894). Testuen edizioan jatorrizko ortografiari eutsi diogu eta hainbat azentuzazio zeinu baino ez ditugu aldatu¹.

1. NAFARROAKO POETA, LIBURUZAINA, ARTXIBOZAINA ETA KRONISTA

Iruñean jaio zen Hermilio Oloritz, 1854an². Bigarren mailako irakaskuntza ikasketak egin zituen Iruñeko institutuan. Garai hartan, historiari buruzko unibertsitate ikasketak arautze bidean zeudenez, gutxi ziren, berez, *historia ikasitako historialariak*. Oloritz ere ez zen historia ikasitako historialaria; hobeki kokatuko genuke *lanbidez historialari* izandakoen artean.

1877ko urriaren 23an Iturralde Suiten etxera joan zen Landa, Obanos, Antsoleaga, Kanpion eta beste batzuekin eta, hala, hamahiru lagunek Nafarroako Euskara Elkargoa sortu zuten. Ondorengo urtean *Revista Euskara* aldizkariko erredakzio buru izendatu zuten eta laster aldizkariari eusteko eta hura garatzeko ardura hartu zuen bere gain. Elkartean zuzendaritza kargurik izan ez zuen arren, Oloritzek lan garrantzitsua egin zuen.

¹ Editoreak eta FEDHAvEk Hermilio Oloritzen jatorrizko liburuak lan honetan erabiltzeko utzi izana eskertu nahi diote Sixto Jiménez Muniaini.

² Pertsonaiaren deskribapen zehatzagoa, honako honetan: NIEVA ZARDOYA, José Luis, «Olóriz, cronista y poeta navarro: “¡Viva Gamazo!”», in LARRAZA MICHELTORENA, María del Mar (koord.), *La Gamazada. Ocho estudios para un centenario*, Iruñea: EUNSA, 1995, 215-228. or.; NIEVA ZARDOYA, José Luis, *La idea euskara de Navarra, 1864-1902*, Bilbo: Sabino Arana Fundazioa; Euskara Kultur Elkargoa, 1999; eta *Navarra: memoria política e identidad*, Iruñea: Pamiela, 2005 (azken lan hori Juan María Sánchez-Prietorekin elkarlanean). Lan horietan guztietan, protagonistari buruzko iturri ugari agertzen dira; hala nola, dokumentuak, kazetaritza arlokoak, historiografikoak eta bibliografikoak.

1878an, 24 urte besterik ez zituela, Nafarroako Foru eta Probintzia Aldundiak liburuzain eta kronista lanpostua sortu zuen beretzat. Lanpostu berriko betebeharek eskatuta, Nafarroako Artxibategi Historikoaren ardura ere hartu zuen bere gain.

Oloritzen lehenengo lanak ikusita, Pedro Madrazo intelektual *europarrak*, 1879tik Historiaren Errege Akademiako idazkari zenak eta gerora Madrilgo Arte Modernoaren Museoko idazkari izandakoak, goraipatu egin zuen Oloritz gazteak izango zuen etorkizun oparoa –bere eta «nafar abertzaleen» ustez³. Bere balorazio onak eragina izan omen zuen, 1885eko urtarrilaren 2an Historiaren Errege Akademiako kide urgazle izendatu baitzuten Oloritz. Hartara, bazuen toki historiografia akademikoan eta erudituan.

1888. urte erdi aldera jaso zuen *kanpoko* errekonozimendua: Frantziako Arkeologia Elkarteko atzerriko kide izendatu zuten. Nafarroako Monumentu Historikoen eta Artistikoen Batzordeko kide ere egin zuten 1891ko maiatzaren 3an.

1897an, osasun arazoak zirela medio, liburuzain eta artxibozain lanak utzi behar izan zituen eta 1902an, suspertutakoan, berriro ekin zion lanari. Dirudienez, artxibategia ez zegoen Oloritzek bertan lan egiteko moduan. Azkenik, 1908ko urtarrilaren 28an ardura hori utzi zuen eta inoiz alde batera ez utzitako kronista karguarekin jarraitu zuen hil arte; sei hilean behin bere lanei buruzko informazioa eman beharra zuen.

Artxibategiko lanpostua utzi ondoren, Auritzen bizi izan zen Oloritz. Nafarroako herri horretan sinatu zuen, hain zuzen ere, 1910eko urtarrilean, Espoz Minari buruzko bere historia lanaren sarrera, eta *Nafarroako Monumentu Historikoen eta Artistikoen Batzordearen buletinak* bigarren faseari ekin zionean, Aurizko egoiliar gisa ageri zen bertan (Oloritz *buletinaren* lehenengo fasean ere ibilia zen lanean. Garai hark 1895. urtera arte baino ez zuen iraun: proiektuaren sustatzaileek Gamazadaren bultzada aprobetxatu nahi izan zutela dirudi, beraz).

Auritzen bizi izan zen bizitzako azken urteetan, ikasketari emana. Azken urteetako lanaren erakusgarri da Martin Azpilkueta kanonista nafar entzutetsuari buruzko monografia historikoa.

Hermilio Oloritz Madrilen hil zen, hala ere, 1919ko maiatzean. Nafarroako hedabideek heriotzaren eta bere aldeko hileta jendetsuen berri eman zuten⁴. EAJren *Euzkadi* egunkariak eta Iruñeko Euskal Etxeak heriotzaren oihar-

³ MADRAZO, Pedro de, *Navarra y Logroño*, Bartzelona: Daniel Cortezo y Cía, 1886, I, 353-354. or.

⁴ Hori esan zuen *El Pueblo Navarro* egunkariak, familiak maiatzaren 11n antolatutako hileta eta Monumentuen Batzordeak maiatzaren 18an egindakoa aipatu zituenean.

tzuna zabaldu zuten. Azken toki horretan, hain zuzen ere, berria jakin zutenean, oihalak zintzilikatu zituzten balkoi nagusian. Horrez gain, Nafarroako bandera gorria jarri zuten haga erdian: Kanpion eta Altadill lagunekin batera Oloritzek sortutako bandera hura bera, alegia. Hedabide guztiek nabarmendu zuten Oloritzen ibilbide pertsonala eta intelektual⁵.

2. JENDETASUN KULTURALA ETA INTELEKTUALA

Oloritzen gaztaroa, bere belaunaldi osoarena bezala, urte zailek markatu zuten. Etsita, alderdi liberalen bidea utzi zuen –1868ko iraileko iraultzak eta familiaren tradizioak bultzatuta egin zuen liberalen aldeko hautua–. Beharbada, 1872-1876ko gerraren ondoren liberalek foru arazoari emandako *irtenbideak* eragin zuen Oloritzek bide hura utzi izana. Minaren minez, hil arte egin zuen borroka «politikako buztinezko idoloa» birrintzeko⁶.

Nafarroako lehendabiziko elite intelektualaren kide nagusietakoa izan zen Oloritz. Ordura arte, intelektualtzat har zitezkeenak Nafarroako historia osoan barreiatuta zeuden. XIX. mendearen azken laurdenean, ordea, lehen intelektual taldea sortu zen. Landa, Obanos, Gaztelu, Iturralde, Arantzadi, Antsoleaga, Kanpion eta Oloritz bera nabarmendu ziren talde horretan. Haiek zuzendu, partekatu eta berenganatu zuten garai hartako proiektu kultural oro –egitasmu aitzindariak, gehienetan–.

Iruñea hiri txikia zen, eta esaterako, Obanos, Iturralde eta Landa umetako lagunak ziren, haien familiak bezala, eta lokarri izan ziren bigarren karlistadaren aurrekoen eta ondorengoaren artean. Karlistada amaitu ondoren, Kanpionek eta Oloritzek, besteak beste, bizigarria ekarri zuten; haiek biak bildu ziren indartsuen elite kultural berrira. Bi kasu horietan ere nabaria da harreman pertsonalen eragina. Kanpionek Iturralderen zuzeneko eragina jaso zuen, bien familiek harreman estua zuten eta. Oloritz Kanpionen umetako laguna zen, eta, antza, zeharka jaso zuen eragin hori, adiskidearen bidez. Iturraldek Kanpionekin eta Oloritzekin zuen distantzia lagungarria izan daiteke bakoitzaren diskurtsoaren –abardurak ulertzeko: Kanpionen diskurtsoa gertuago zegoen Iturralderenetik, bere itzalean ia; Oloritzena, berriz, urrunago zegoen, bere pentsamendu propioei lotuago. Ñabardura horiek ezin dute funtsa ahaztarazi, ordea. Txanpon beraren bi aldeak ziren eta: Kanpion, sentimendua arrazoi bihurtua; Oloritz, arrazoia sentimendu bihurtua.

⁵ *Euzkadi*, 1919ko maiatzak 6 eta 7 eta *El Pueblo Navarro* eta *Diario de Navarra*, 1919ko maiatzak 6.

⁶ OLÓRIZ, Hermilio de, *Fundamento y defensa de los fueros*, Iruñea: Román Velandia Inprimategia, 1880, 3. or.

Kanpionek, 1891n, Oloritz gorai patu zuen Katalunian. Bere diskurtsoari eta *Cartilla foral* manifestuak izandako oihartzunari esker, kataluniarrek Oloritz gonbidatu zuten Gamazada amaitu berritan. Kataluniara joanda, are gehiago sendotu ziren nafarren eta kataluniarren arteko harreman goiztiar eta irmoak. Nafarrek, gainera, ideia katalanistenekin egin zuten bat (Mañé y Flaquer, Prat de la Riba). Sabino Aranaren jarraitzaileak katalanismo politikoarekin harremanetan jarri zirenerako, nafarrek urteetako harreman estua zuten.

Hori ez zen oztopo izan, hala ere, Oloritzek bizkaitarraren irudia estimatzeko eta baloratzeko. Eta Aranak nafarrarenganako sentimendu eta uste on bera zuen. Finean, Aranaren nazionalismoa foruzaletasunaren azken urratsa besterik ez zen izan, aldarrikapenaren azken katebegia. Katea lotzea ezinezkoa izango zatekeen Oloritzen foruzaletasunarengatik izan ez balitz; hura izan baitzen azkenurreko euskarria. Baina hau ere zehaztu beharra dago; izan ere, nazionalismo ez-separatista bat sortu zen bezala, ez legoke sobera foruzaletasun sezesionistaren sorrera aipatzea.

Foruzaletasunaren aldeko giro hartan, nafarrak Fidel Sagarminagaren inguruko taldearekin jarri ziren harremanetan; talde hark helburu bera sustatu zuen Bizkaian, eta 1880an, Bilbon, Euskalerria Elkartea eta *La Unión Vasco-Navarra* egunkaria sortu zituen. Bertara jo zuten, idatziak kaleratzeko, 1886an *Lau-Buru* egunkaria desagertu zenean.

3. ONDARE INTELEKTUALA

3.1. Gaztaroko lanak

Bigarren karlistadaren amaierak eta foruen aurkako ondorengo kanpainak gogor astindu zuten Oloritz. Izan ere, poetak Nafarroarekiko pasioa zuen txikitatik, eta abertzale gisa erreakzionatu zuen⁷. Oloritz gaztearen abertzaletasunak isla izan zuen haren lehen argitalpenean, *Romancero de Navarra* (1876) lanean. Ordurako Ramón Campoamor literato eta politiko liberalarekin harremanetan zegoen. Campoamorrek atseginez jaso zuen lana, eta horrek adorea eman zion Oloritzi⁸. Gaztea izatea ez zen eragozpen izan anbizio handiko proiektua bati- liburua argitaratzea ekarri zuena- heltzeko: Nafarroako erromantzea sortzea

⁷ CAMPIÓN, Arturo, «Hermilio de Olóriz», *Obras Completas*, Iruñea: Mintzoa, 1995, XV, 244. or. (*La Avalancha* argitalpenean 1911ko otsailaren 24an kaleratutako artikulua dago bertan).

⁸ AZCÁRATE, Tomás de, «Hermilio de Olóriz», *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra*, X, 1919, 151-152. or. Azalpen biografiko honetan, Oloritzek garai hartako pertsona garrantzitsuekin izandako gutun trukea erabiltzen du Azkaratek (lehenengo, *Diario de Navarra* egunkarian argitaratu zen, 1919ko maiatzaren 7an eta 8an).

(edo, azpitoluak zioen bezala, erromantze euskal-nafarra). Urrunago ere iritsi zen bere lana, liburu argitaratu ondoren hasi baitzen genero hau lantzen Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Urte hartan bertan, 1876an, kazetari lanak egiten hasi zen Oloritz: Madrilgo *La Paz* egunkari foruzalean kolaboratzeari ekin zion. Hain zuzen ere, Madrilen kaleratu zuten, 1874an, agian argitaratutako Oloritzen lehendabiziko lana, Ángel Rodríguez Chavesen ipuin liburu baten hitzaurrea.

En manos del extranjero bere antzerki saiakera 1878an antzeztu zuten Iruñeko Principal antzokian eta arrakasta handia izan zuen. *Revista Euskara* (1878-1883) aldizkarian eta *El Arga* (1879-1881) eta *Lau-Buru* (1882-1886) egunkari foruzaleetan ere egin zituen kolaborazioak.

1880an lehendabiziko prosa-lan historikoa argitaratu zuen Oloritzek: *Fundamento y defensa de los fueros*, Euskara Elkartek ohorezko kideei banatu zien liburu bakarra. Honako edizio honetako bigarren liburu dugu hau.

Iruñeko Udalak 1882ko Sanferminetan antolatutako literatura lehiaketan *Las Navas de Tolosa* oda eta *Roncesvalles* poesia saritu zizkioten. Azken lan hori Udalak argitaratu zuen ondoren. Handik urtebetera, lehiaketa berean, beste sari bat eman zioten *Calahorra* poemarengatik. Oloritzek José Zorrilla literatari helarazi zion lana, eta hark gazte iruindarra, lehendik ezagutzen zuena, goraiatu zuen.

1887an, Aldundiaren laguntzaz, Nafarroako Erreinuko historiaren laburpen atsegin bat argitaratu zuen –egileak berak hasierako hitzetan adierazi zuen bezala–. *Resumen histórico del antiguo Reino de Navarra* lanak, edizio honetako lehenengoak, Prosper Boissonnade historialari frantziarraren laudorioak jaso zituen –Boissonnade ezaguna izan zen gerora Nafarroaren konkistari buruzko lan bat egin zuelako–. Horrez gainera, Kapitolina Bustintzerentzat eredu izan zen *Compendio histórico* idazteko.

1888an eta 1889an *Revista del Antiguo Reino de Navarra* aldizkarian ibili zen kolaboratzaile. Garaiko idazle nafar esanguratsuenek aldizkari hartan argitaratu zituzten beren lanak.

1893ko lehenengo hilabeteetan, Gamazada hasteko gutxi falta zela, *Laureles y siemprevivas* poesia liburu argitaratu zuen Aldundiaren laguntzaz⁹.

⁹ Kanpionen hitzetan, Probintziako Inprimategian eta «Nafarroako Aldundiaren laguntzaz, laguntza hori kasuaren eta garaia araberakoa izanik», *Laureles y siempre vivas*, *Romancero de Navarra*, *Resumen histórico del antiguo Reino de Navarra* eta *La cuestión foral* imprimatu ziren («Hermilio de Olóriz», *Obras Completas*, XV, 246. or.). Probintziako Inprimategian imprimatu zituzten, halaber, *Aula de Dios*, *Ecos de mi patria*, *Breves nociones geográficas de Navarra para instrucción de los niños* eta Archivo de Comptos: informe sobre su estado.

3.2. Gamazadaren loria egunak

Oloritzek Gamazadaren garai nahasian jaso zituen lan pertsonalaren eta intelektualaren fruituak. Lan hori gabe, ziurrenik, Gamazada bestelakoa izango zen. Mobilizazio garaian lortutako protagonismoak Oloritz gizon publikoa zela eta gizartean itzal handia zuela agerian uzten digu. Eztabaidarako joera handia zegoen garai historiko hartan, eta egunkari guztiek Nafarroarekiko bere grina eta ardura nabarmendu eta begirunez eta maitasunez tratatu zuten.

Gamazada hasi zenean Oloritz Madrilen zegoen. Aspaldiko proiektu batean ari zen buru belarri: *Diccionario de hombres notables de Navarra*. Madrilen zegoen kronista haren lehenengo albisteak 1893ko maiatzaren 27an iritsi ziren: uniformizazio fiskala lortzeko asmoz Germán Gamazo Ogasun ministroak Erreinu Zaharrean ezarri nahi zituen planen aurkako idatzi bat sinatu zuten Madrilen bizi ziren nafarrek. Hermilio Oloritzek idatzitakoa zen protesta idatzi hura¹⁰. Berak bildu zituen sinadurak eta berak igorri zituen Aldundira. Eta berriro ere Madrilen bizi ziren nafarren eledun bihurtu zen. Iturralderekin batera, probintziako ordezkarietara telegrama bat bidali zien, ekainaren 3an, ondorengo eguneko manifestazioari atxikimendua adierazteko.

Protestarekin batera, poesia bat bidali zuen Oloritzek, *A Navarra* izenekoa, azken gertakarietara buruzkoa. Bertsoa tokiko egunkarietan kaleratzea edo esku orrietan inprimatzea eta manifestaziora joandakoen artean banatzea proposatu zuen, diputatuek egoki iritziz gero. Aldundiak eskaera onartu eta bi proposamenak gauzatu zituen¹¹.

Oloritzek Nafarroako gizartea hunkitu zuten une berezi haiek erabili nahi izan zituen eragina lortzeko. Horretarako, egunkariez *baliatu* zen. Komunikatzaile bikaina baitzen Oloritz intelektuala.

Abuztuaren 9an Madriletik itzuli zenean, *Cartilla foral* laster argitaratuko zuela zabaldu zen –ondoren, *La cuestión foral* liburuan ere agertu zen–:

Hermilio Oloritzek, Foru Aldundiko kronistak, eskoletarako liburuxka bat idatzi du, jada inprimategietan dagoena –aurreratu zuen prentsak–. Liburuxka horretan nafar on orok jakin beharrekoa dago, katixima eran idatzita, galderarantzunetan antolatuta. Horrela, umeei Erreinu Zahar hau zer izan den eta zer den erraz irakatsiko zaie: foruak zer diren, foruetatik zer gorde dugun eta zer kontraforu egin dituen Estatuak¹².

¹⁰ «La protesta» ekainaren 7an plazaratu zuten *El Tradicionalista* argitalpenean, baina maiatzaren 27ko data du. Nafarroako Gobernuaren Administrazio Artxibategian ere badago, Aldundia, Foruak, 1893-1894.

¹¹ Oloritzen poesia honako lan honetan irakur daiteke: *Ecos de mi patria: leyendas y poesías*, Iruña: Probinziako Inprimategia, J. Ezquerro arduradun, 1900, 141-143. or.

¹² *El Eco de Navarra*, 1893ko irailak 14.

Liburutxo handia –orduan argitaratutako iritzien arabera– 1894ko otsailan kaleratu zuten, Gamazadaren bigarren momentu nagusian. Otsailaren 10eko *El Liberal Navarro* egunkarian aurreikusi zutenez, lan hura, «une honetan oso interesgarria», oparo hedatuko zen Nafarroa osoan.

Bata bestearen atzetik iritsi ziren lan berriari buruzko albisteak, egi-leak berak egunkarietara bidalitakoak. Albisteei erreparatuta, argi dago lanak arrakasta izan zuela zabalkunde aldetik. Euskarazko eta katalanezko itzulpenak egin zirela ere badakigu, haiei buruzko oso erreferentzia adierazgarri eta esanguratsuak baitaude berrietan. Gizartearekin bat egitea lortu zuen Oloritzek, eta prentsak hori ere nabarmendu zuen. Aldundiak *Cartilla* inprimatu zuen, Oloritzek, ondoren, haren aginduz kronika idatzi eta gero¹³.

Pertsonaia ezagututa, litekeena da Arturo Kanpion lagunaren babespean sortutako *El Aralar* egunkariaren sorreran eta garapenean Oloritzek nolabait parte hartu izana. Egunkari hura ere 1894ko otsailan sortu zen.

Aldundiaren ordezkariak otsailaren 12an joan ziren Madrilera eta han aurkitu zuten kronista eta liburuzaina. Oloritz Madrilan, eta Oloritz Iruñean. Izan ere, berea zen iruindarrek herrialdeko ordezkarietara agur esan ziezaieten eskatzeko Nafarroako prentsari (*El Liberal Navarro*, otsailak 10) igorritako gutuneko sinadura zerrendan lehena. Antza, ekimenak arrakasta izan zuen. *El Anunciador Vitoriano* agerkariak jakinarazi zuenez, eguerdiko hamabietan dendak itxi zituzten eta hainbat talde eta elkartetako ordezkariak Aldundiaren jauregira joan ziren. Kalkuluaren arabera, 20.000 lagun inguru elkartu ziren plazan, foruen eta Aldundiaren alde bibaka.

Oloritz, gainera, erreportari bihurtu zen, eta otsailaren 15ean telegrama bat bidali zuen Aldundiak Gamazorekin izandako elkarriketaren berri emateko. *Diario de Avisos de Tudela* eta *El Eco de Navarra* egunkarietan agertu zen telegrama egun hartan bertan.

Gamazada garaian Oloritzek hainbat *enkargu* jaso zituen. 1893ko ekainaren amaieran, *El Liberal Navarro* egunkarian, ereserki bat sortzea komeni zela adierazi zuen, eta jendeak harrera ona egin zion proposamenari. Aldundiak pozik onartu zuen ideia, eta ereserkiak «herri noblearen foru sentimenduen adierazpen musikala» izan behar zuela gaineratu zuen. Nafarroako agintari gorenak Oloritzengan pentsatu zuten mezu hura poesia moduan betiketze-

¹³ *Lan berriaren arrakastaz, Ángel García-Sanz Markotegik («La Gamazada» y Luis Morote, Iruñea, 1992, 34. or.), Corcuera eta Oribe aipatuta, hark Doctrina Catalanista idazterakoan eta Sabino Aranaren Doctrinario Bizkaino argitaratzerakoan izandako eragina nabarmentzen du. Aranaren Bizkaitarra egunkariak, 1895 hasieran, Cartilla foral argitaratu zuela ere esaten du, Gamazadari buruzko Oloritzen kronikaren azken kapituluarekin batera.*

ko¹⁴. Abuztu hasierarako Oloritzek idatzia zuen ereserkia, eta egunkariak testua argitaratu zuten. *El Liberal Navarro* egunkarira, behintzat, egileak berak bidali zuen ereserkia.

Oloritzen letrak bide propioa egin zuen. Musika jartzeaz Larregla, Gartzia, Erbiti, Landibar eta Rosaenz arduratu ziren: «Kontzientzia publikoan erabat errotu zen!», esan zuen Arturo Kanpionek¹⁵.

El Aralar agerkariak beste enkargu baten berri eman zuen 1894ko apirilaren 19an: Gamazadaren mezua iraunaraztea, alegia, oraingoan kronika gisa. *La cuestión foral: reseña de los principales acontecimientos ocurridos desde mayo de 1893 á julio de 1894* liburua da, edizio honetan bildutakoetan hirugarrena. Oloritzek *Navarra Ilustrada* argitalpenean ere parte hartu zuen; hainbat grabatu eta idatzi biltzen ditu argitalpen horrek, eta 1894ko Sanferminetan argitaratu zuten, Gamazadaren itzalpean. Oloritz izan zen bi lan argitaratu zituen bakarra: lehenengoa, azaleko poesia, foruen omenezko monumentu proiektuaren azpian; bigarrena, testu historiko bat.

Bere momentua zen. Iruñean, maiatzaren 28an, igandez, zezenketan, *Gernikako Arbola* eta Oloritzen hitzak zituen *zortziko* bat abestu zituen gazte talde batek¹⁶. Gervasio Etaio, ekainaren 6an, *El Tradicionalista* agerkarian manifestazio handiaren kronika idatzi zuenean, Oloritzen zeregina nabarmendu zuen. Gauza bera egin zuen *El Liberal* Madrilgo egunkari errepublikarraren Nafarroako berriemaileak ere¹⁷.

Oloritzek Gamazadaren ekitaldi nagusietan parte hartu zuen, berak idatzitako testuak irakurritz edo errezitatuz. Batzuetan, ekitaldian bildutakoek eskatuta egiten zituen irakurketak edo errezitaldiak; besteetan, aldez aurretik programatuta. Batean zein bestean, beti lortzen zuen publikoa liluratzea eta berotzea.

Salbuespenak salbuespen, Oloritz izan zen literato eta publizista moduan ekitaldi haietan parte hartu zuen letren munduko pertsonaia bakarra. Batzuetan, musikariz *inguratuta* agertzen zen; besteetan, berak hartzen zuen ekitaldiaren protagonismo osoa. Garai hartan egindako lan oparoaren erakusgarri dira egunkarietako iruzkinak. Ahotsa galduta ibili zela ere jasotzen dute iruzkin horiek. Egun frenetikoak izan ziren, ereserki foralaren arrakastak eragindakoak.

¹⁴ *El Eco de Navarra*, 1893ko uztailak 28. Ereserkia irakurtzeko, jo honako honetara: OLÓRIZ, Hermilio de, *Ecas de mi patria*, 147-149. or.

¹⁵ CAMPIÓN, Arturo, «Hermilio de Olóriz», *Obras Completas*, XV, 245. or.

¹⁶ *El Tradicionalista*, 1893ko maiatzak 30.

¹⁷ *El Liberal Navarro*, 1894ko urriak 12, Morotek idatzirik eta *El Liberalen* argitaratutako artikularen zati batekin.

3.3. Gamazadaren ondorengo gainbehera

Foruen aldeko eztanda sutsu hark isla izan zuen, oraindik ere, Bartzelonako lore-jokoan mantentzaile gisa 1895eko maiatzean egindako diskurtsoan. Oloritz Kataluniako Centro Excursionista de Cataluña guneko kide-ordezkaria zen eta Kanpionek 1891n eman zuen bere berri *Lliga de Catalunya*¹⁸.

Oloritzen testua maiatzaren 28an argitaratu zuten *La Tradición Navarra* egunkarian. Azken gertakarien inguruko azterketa zen, konpromisoak berekin ekarri ohi duen presa gabe egindakoa. Aberriaren askatasun murriztuen aurka «atentatu latza» egin behar zuten «une» gisa definitu zuen Gamazada: Oloritzen iritziz, Espainia osoaren gorrotoa pizten saiatu ziren «une» hartan, inbidiak adimenari gaina hartu zion eta zenbakiaren indarra erabili zuten Nafarroaren eskubideen kontra egiteko. Nafarroa hondoratzea erabaki zuten garai hartan; horrek borroka izugarria ekarriko zuen. Hala ere, nafarrak «bakarrik baina eskubideak defendatzeko prest» zeuden. Pozarren iragarri zuen: «Badator aldarrikapenaren egun pozgarria; eskualdeetako energiek hori iragartzen dute, bizitzaren arlo guztietan etengabe agertzen ari dira eta». Eta guztiei dei egin zien (gaztelauei; nafarrei; gipuzkoarrei, bizkaitarrei eta arabarrei; katalaneiei eta «gainerako herri zapalduiei») bakoitzak bere erakundeen alde borroka zezan.

Gamazada hasitakoan Madrilen zegoen Oloritz: *Diccionario de hombres notables de Navarra* prestatzen ari zen. Huraxe izan zen bere frustraziorik handiena. Dena dela, 1898an eta 1899an, lanaren zati biografikoak agertu ziren *El Eco de Navarra*, «Navarros ilustres» izenburupean. 1904an beste zati bat aurkeztu zuen Donostiako erakusketa etnografikoan. Handik gutxira, bizi osoko lan hura nolabait berpizteko azken ahalegina izango balitz bezala, berriro argitaratu zituen, *Diario de Navarra* egunkarian (1905), Nafarroako hainbat pertsona ezaugarrien biografiak¹⁹.

Urte batzuk lehenago, 1897an, Fray Miguel Dicastillo nafarraren *Aula de Dios* poema moldatu zuen. Lan berriak Nafarroan baino harrera hobea izan zuen Nafarroatik kanpora; bere lana ezagutarazi zuen eta, besteak beste, Marcelino Menéndez Pelayori helarazi zion Oloritzek.

1900. urtean kondairak eta poemak biltzen zituen bere azken lana plazaratu zuen: *Ecos de mi patria*. Antonio Rubió Lluch Bartzelonako Unibertsitate-

¹⁸ CAMPIÓN, Arturo, «Conferencia acerca del origen y desarrollo del regionalismo nabarro, dada en la *Lliga de Catalunya* la noche del 3 de junio de 1891», *Obras Completas*, XIII, 31-52. or.

¹⁹ Honi buruz, ikus GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, Ángel, *Diccionario biográfico de los Diputados Forales de Navarra (1840-1931)*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, Presidentetza eta Barne Saila, 1996, 26-27. or.

ko literatura katedradun eta katalanistari ale bat bidali zion irakurtzeko, lehen beste lan batzuekin egin zuen bezala. Handik bi urtera *Breves nociones geográficas de Navarra para instrucción de los niños* argitaratu zuen, eta testu liburu gisa erabili zuten hainbat eskolatan. Galdera-erantzunez osatutako liburua zen, *Cartilla foral* bezalakoa. Dirudienez, *Cartilla* foralek utzitako hutsunea bete nahi zuen liburu hark. Izan ere, *Cartilla* lanean Nafarroako historia jorratu zuen, eta bigarren horretan, berriz, artea, industria eta lurzoruaren baldintza fisikoak. 1904an Kontuetako Ganberaren Artxibategia berrantolatzeke lana argitaratu zuen.

Ecos de mi patria liburuan, berriro ere, Nafarroa suspertu beharra ekarri zuen mahai gainera. Itxaropena galtzen ari zen. Lan honek ez du datarik, baina foruen inguruko gertakarien garaikoa dela pentsa daiteke. Bertan zioenez, «baina, zer diot? Nire aberria bizirik dago, Pirinioetako basoetan pizten ari dela ikusten ari naiz, eskutan gerrarako ezpata duela»²⁰. 1897ko beste poema batean, ordea, «itxaropena ez hilobiratzeko» nahia agertu zuen²¹. Oloritzek sentitzen zuen Nafarroa eguneroko zorigaitzoko bizimodura itzultzen ari zela: aberria berriro ere lozorroan sartuko zela, alegia.

1903. urte amaieran, beldurra errealitate bihurtu zen: foruen aldeko Gamazada garaiko leherketa itzaltzen ari zen. Handik hamar urtera, berriro ere, gertakari haiei erreparatu zien nolabait. Artxibozain lanetan ari zela sortu zitzaion aukera, Aldundiak foruen omenezko monumenturako idazkun proiektu bat aurkez zezan eskatu zionean²². Bere ustez, monumentua bera egitea ekarri zuen arrazoitik harago joan behar zuen proiektuak; izan ere, gertaera haren ondorioz, «Nafarroak, bere izaera gogoan, eta une batez hura berreskuratuta, bere eskubideak aldarrikatu zituen». Horregatik, «Nafarroaren pertsonifikazioaren» ikur izan behar zuen monumentuak. Gamazadaren garaikoa izateak ez zuen monumentua garai edo une jakin bati kateatuta utzi behar.

Oloritzen iritziz, Nafarroaren pertsonifikazioak merindade guztiak hartu behar zituen kontuan. Sei merindadeak hartu behar ziren aintzat, nahiz eta «zori latzak» Nafarroa Beherea «ahizpengandik» bereizi zituen. Monumentuak bost alde izango zituenez, bost behar zuten izan Nafarroa pertsonifikatzeko oroitarriek. Oloritzen ustez, aspaldiko garaiei buruzko apamenak euskarazkoa izan behar zuen, karaktere iberikorekin, eta garai modernoiei buruzkoa ere bai, baina karaktere «neolatindarrekin». Oloritzek proposatutako testuek lotura estua zuten bere diskurtsoetako gai nagusiekin. Aldundiak onartu egin zuen artxibozainaren

²⁰ OLÓRIZ, Hermilio de, *Ecos de mi patria*, 100. or. Poesiaren izena: *Patria...*

²¹ OLÓRIZ, Hermilio de, *Ecos de mi patria*, 24. or. Poesiaren izena: *A la lumbre del hogar*.

²² Nafarroako Artxibategi Orokorra, Nafarroako Aldundiaren aktak, 143. liburua, 1903ko azaroaren 13ko saioa.

txostena, eta oroitarri eta armari guztiak jarri zituzten, Nafarroa Behereari zegokiona izan ezik.

1910ean Espoz Minaren Independentzia Gerra garaiko biografia kaleratu zuen. Nafarroako Monumentuen Batzardeak eta Marcelino Menéndez Pelayok, garai batean publizista iruindarrarekin harremana izandakoak, kritika onak egin zizkioten liburuari. Bertan idatzitako eskaintzan, Oloritzek agerian utzi zuen ez zegoela, ordurako, Gamazadaren garaiko foruen aldeko eztanda laburraren arrastorik ere. Nafarroaren espiritua lozorroan zegoen berriro ere, Gamazadan egindako ahalegin eskergarengatik nekatuta. Oloritzek ez zuen etsi nahi, ordea. Eta 1880ko liburuan, nafarren adorea –frantziarren aurkako gerran, XIX. mende hasierakoan, heroismo bihurtutakoa– goraiatu zuen. Gerrillari famatuari buruzko lan hartan, gerraren esanahiari buruzko iritzia nabarmendu eta sakondu zuen. Ez zitzaion Espoz Minaren figura berez interesatzen, baizik eta «foruekiko maitasuna aldarazi zuen zorigaiztoko gerra hartan Nafarroak egindako sakrifizio handiak erakusten zituelako»²³.

Besteak beste, honako gai hauei erreparatu zien: nafarren heroismoaren eta Espainiako soldaduek Nafarroan sartutakoan izandako jarreraren arteko kontrastea, Cadizko Gorteen foruak abolitu izana eta, geroago, 1841ean, erreinua probintzia bilakatu izana. Diskurtsoan ez zuen ezer berririk aipatu, beste bat delako liburuaren berezitasuna: Nafarroa berriro lozorroan zegoela ikusita, lozorro horren arrazoia argitzen saiatu zen. Eta arrazoiaren bila, memoria historikoak oraina ulertzen lagunduko zuen gertakarietako bat eskaintzen omen zuen. Horretarako, Nafarroa pertsonifikatuko zuen norbait aukeratu zuen: Espoz Mina. Gerran ausart borrokatu zen, forua gogoan zuela, baina ondoren, Espainiako araubideari buruzko kontuetan behin hasitakoan, alde batera utzi zuen.

Oloritzek gerra hark Espainiako nazionalismoaren eta batasun nazionalaren sentimenduaren sorreran eragin handia izan zuela uste zuen. Borrokaren ezaugarriengatik, hasierako *elkarrekin baina elkarren artean nahastu gabe* sentimenduaren ondoren, espainiar izateko sentimendu bateratua agertu zen.

Oraina eta Nafarroaren lozorroaren arrazoi nagusia ulertzeko saio horretan kokatu behar dugu, hain zuzen ere, Oloritzen ondorengo eta azkeneko lana: Martin Azpilkuetari buruzkoa, 1915. urte amaieran Auritzen bukatutakoa. XV. mendearen amaieran jaiotako teologo, kanonista eta moralista entzutetsu haren biografiak bidea eman zion –Espoz Minak frantziarren aurkako gerraz jarduteko aukera eman zion bezala– aberriak independentzia galdu zuen garaiari sakonago

²³ OLÓRIZ, Hermilio de, *Navarra en la Guerra de la Independencia: biografía del guerrillero D. Francisco Espoz (Espoz y Mina) y noticia de la abolición y restablecimiento del régimen foral*, Iruñea: N. Aramburu, 1910, 47. or.

erreparatzeko. Azpilkueta garai hartako Nafarroako egoeraren adierazgarri zen: erreinua independentea zela jaioa zen arren, hiltzerakoan ez zen soilik nafar sentitzen.

Aurreko lanetan islatutakoa nabarmendu zuen Oloritzek: «Beraz, aberriak (naturaren edo, hobe esanda Jainkoren obra) estatuen sorrerarekin erori, aldatu eta desagertzen direla dioena ezin da abertzale entzutetsutzat hartu; estatutuak egoeren, indarkeriaren, politikaren edo gerraren emaitza besterik ez dira eta»²⁴.

Espoz Minari buruzko liburuan Nafarroako Erreinuako Gorteetako azken sindiko izandako (aholkulari letratua) Sagaseta Ilurdotzen *Fueros fundamentales del reino de Navarra* opuskulua txertatu zuen; 1910. urtean egin zuen hura, eta testamentu borondate gisa ulertu beharko genuke²⁵. Gobernuak bahitu egin zuen Sagasetaren lana, argitaratu orduko, 1839an. Sindikoaren testua «gure aberriaren maitaleek nahitaez irakurri beharreko dokumentua» zela zioen Oloritzek. Lan hura ahanzturatik salbatuta, Oloritzek «Nafarroako Erreinuaren Konstituzioaren berri» eman nahi zuen labur eta zehatz, «1812ko Konstituzioaren aldekoek, nazioaren aurkako delitua eginda, abolitutakoaren berri».

Sagasetaren hitzak erabili zituen Oloritzek, sindikoak hirurogeita hamar urte lehenago Nafarroako konstituzionalismoari buruz izandako ideiak bere egiteko. Sagasetaren arabera, 1839ko urriaren 25eko Legearen klausulak, «monarkiaren batasun konstituzionalari kalterik egin gabe» zioenak, Nafarroaren berezko izatea eta bere erreinu independente izaera suntsitu zituen eta probintzia soil bihurtu zuen: «Hura ez zen foruak berrestea, haien ardatz nagusietako bat desagitea baizik. Espainiarentzat oso baliagarria izan zitezkeen Nafarroaren batasun konstituzionala eta Nafarroa probintzia soil izatea, probintzia pribilegiatua izan arren; baina erabilgarritasuna eta justizia ez ziren gauza bera».

Nafarroa berez zen erreinua, monarkia konstituzionala, Gaztelako Koroarekin berdinen arteko lotura bidez bat egindakoa. Hortaz, Nafarroak berak baino ezin zituen bere foruak edo konstituzioa berretsi edo aldatu eta berak baino ezin zuen Gaztelako Koroarekin beste lotura mota bat ezarri: «Ez zegoen beste bide justu, zilegizko, egonkor eta politikorik». Eta Nafarroako Erreinuak, legearen arabera elkarturik, ez zion inoiz inori foruak aldatzeko baimenik eman.

Sagaseta euskarriztat hartuta, Oloritz jatorrira itzuli zen eta, 1839. urte ondoren gertatutako guztiari zilegitasuna kenduta, 1512 eta 1841 arteko egoera-

²⁴ OLÓRIZ, Hermilio de, *Nueva biografía del doctor navarro D. Martín de Azpilcueta y enumeración de sus obras*, Iruñea: N. Aramburu, 1918, 154-155. or.

²⁵ SAGASETA DE ILÚRDOZ, Ángel, *Fueros fundamentales del reino de Navarra*, Valentzia, 1839, eta OLÓRIZ, Hermilio de, *Navarra en la Guerra de la Independencia*, 441-456. or.

ra itzultzea eskatu zuen. Orain ez zuen 1841eko Legea defendatzen, Nafarroak lehendik eskuratutakoa pixkanaka galtzea zekarrelako haren aplikazioak. Oloritzek zalantza izan zuen beti lege horretaz: batzuetan haren alde onak nabarmentzen zituen eta, besteetan, txarrak. Etorkizun iluna zetorrela susmoa zuenean eta garai hobeen zain zegoenean, defendatu egiten zuen legea. Aurreko garaia, Nafarroak konstituzioa zuenekoa, gogoan zuenean, berriz, haren aurka egiten zuen: nafarrei ikusarazten zien bat eginda etorriko zela konponbidea, bat eginda harago joan ahal izango zutela foruak osorik berreskuratzeko bidean, eta aberriak iraun egiteko zuela.

Ez zituen 1512ko eta 1841eko itunak gaitzesten (*etsaiei* egiten baitzien mesede horri buruzko edozein zalantzak). Hala ere, kanpokoen kodiziaren eta, batez ere, barne banaketaren ondorio zirela uste zuen. Historian nafarrek beren zuzenbidea sortu zuten eta ezin zitzaaien indarrez kendu. Irtenbidea lehengo bera zen: aberria nafarren foruen eta zuzenbidearen inguruan batzea. Ingalaterran bezala, non idatzi gabeko konstituzioa duten eta hura ez den eztabaidagai izaten, ez baitago inongo zalantzarik.

Azkarateren hitzetan, «bardo sutsuari, jendetzaren idolo izandakoari» tristura eta desengainuaren garaia iritsi zitzaion, eta tristezia txiki haiek bizitzako azken egunak samindu zizkioten²⁶. Antza, Gamazadaren garaikougarra bertatik bertara ezagutu izanagatik gehiago sufritu zuen, itxaropen handia piztuzion eta. Berak idatzitako bi poemen izenburu adierazgarriek ongi islatzen dute bilakaera. *A Castilla* da haietako bat. Ez zuten inoiz inprimatu, badaezpada ere, eta abertzaleen otordu ondorenetan eta bileretan erabili ohi zuten; «bardoaren barne min orrua» zen nolabait²⁷. Ezagutzen dugun bere azken poesia da beste lana: *A la Virgen de Roncesvalles*. 1912 inguruan sortu zuen eta, Oloritz zaharrrak, etsita, Probidentziaren esku uzten zuen dena²⁸.

A Castilla poeman ageri den adorea eta indarra, *agindu gabeko lur hura*, desagertu egin zen erlijioaren eta aberriaren sinbolo bihurtutako *Virgen de Roncesvalles* lanean; «behingoz Euskaria salbatzeko» erregutu zuen Oloritzek. Bizitza eta intelektualtasunarekin lotutako esperientzia luze eta mingotsa dago bi poemen artean.

²⁶ AZCÁRATE, Tomás de, «Hermilio de Olóriz», *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra*, X, 156. or. eta *Diario de Navarra*, 1919ko maiatzak 8.

²⁷ CAMPIÓN, Arturo, «Conferencia acerca del origen y desarrollo del regionalismo navarro, dada en la *Lliga de Catalunya* la noche del 3 de junio de 1891», *Obras Completas*, XIII, 45. or. eta «Hermilio de Olóriz», *Obras Completas*, XV, 245. or. Poesia honako lan honetan dago: NIEVA ZARDOYA, José Luis, «Olóriz, cronista y poeta navarro: “¡Viva Gamazo!”», 283-284. or.

²⁸ Ikus AZCÁRATE, Tomás de, «Hermilio de Olóriz», *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra*, X, 157. or.

Itzali egin zen bukaeran Oloritz, osasun, adin eta desengainu kontuak zirela medio. Oin puntetan joan zen.

Eta udaberria lehertu zen egun argi batean betiko joan zitzaigun gizon irmo hura, protestarako ezpata beti eskutan izan zuena: Hermilio Oloritz Azparren. Menderatze bidegabearen eta indartsuen tiraniaren aurka egin zuen protesta²⁹.

4. ARGITARATUTAKO LIBURUEN TESTUINGURU HISTORIKOA ETA EDUKIA

4.1. Resumen histórico del antiguo Reino de Navarra

Gaiaren arabera sailkatu ditugu edizio honetako lanak; horregatik jarri dugu lehen tokian *Resumen histórico del antiguo Reino de Navarra* (1887), *Fundamento y defensa de los fueros* baino zazpi urte geroagokoa izan arren.

Pérez Goienaren arabera, liburuak «Yanguasen historia ematen du labor: García Jiménez eta beste alegiazko errege batzuk onartzen ditu. Gainerakoan, laburpena ongi egina dago»³⁰.

Kritika ona egin zioten testuari *Euskal-Erría* aldizkarian: «Kolaboratzaile eta lagunak» idatzitako liburua «interesgarria» zela zioten. Aldizkariaren arabera, Oloritzek trebetasunez egin zuen «aberriaren aldeko» bere enpresa eta «pedanteriarik gabe» kontatu zituen erreinuaren nondik norakoak. Behar bezala frogatu gabeko gertakariak ez zituen jaso, eta azterlan kritiko modernoetan baino ez zen oinarritu³¹.

Liburuak nolako zailtasunak gainditu behar izan zituen kontuan hartuta, nabarmentzekoa da Aldundiak ere Nafarroak historia berri bat behar zuela adierazi izana, garai bakoitzak iraganaren bere ikuspuntua izan beharko balu bezala. Yanguas y Mirandaren 1832ko begirada, Erreinu Zaharraren historiari buruzko azken lan handia, zaharkituta omen zegoen, eta beraz, aberriaren memoria berzartu beharra zegoen. Euskara Elkarteko kideak ere Nafarroari buruzko historia berria idatzi beharraz jabetu ziren. Oloritz elkarte hartako kide zen, eta prest agertu zen erakundeak eskatutakoa egiteko, zeharka bazen ere.

Lan hura argitaratzeko gainditu beharreko oztopoak aipatu ditugu lehen. Oloritzek historia «jendarteratzea» komeni zela esan zion Aldundiari, ezjakintasunak Nafarroako abertzaletasuna itzal ez zezan. Aldundiak eskaintzari era-

²⁹ «Nuestros muertos», *Euzkadi*, 1920ko otsailak 14, José M. de Ojarbidek sinatua (Gregorio Muxikaren izengoitia).

³⁰ PÉREZ GOYENA, Antonio, *Ensayo de Bibliografía navarra: desde la creación de la imprenta en Pamplona hasta el año 1910*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, 1962, VIII, 503. or.

³¹ *Euskal-Erría*, 1888, XVIII, 435-436. or.

bilgarri iriztea eta hura onartzea baino ez zen falta. Agintariak Oloritzen gutuna eta eskuizkribua Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen Batzordeari igorri zizkioten³².

Sakon aztertu ondoren, batzordekide batek proposatu zuen batzordeak adierazi beharko zuela herri bat heztea helburu zuen liburu batek ezin zuela «eskualdearen abertzaletasuna» goretsi «Espainiako abertzaletasunaren» kaltetan. Batzordekidearen iritziz, lan hura hobea izango zen Espainiako gainerako tokiak adierazpen «mespretxuzko, arriskutsu edo zalantzazko» oro kenduta. Iritzi kritiko hura, hala ere, ez zen zentsurara iritsi. Egileak, azkenik, Aldundiak eskaintza onartu eta argitalpena babes zezan eskatu zuen.

Iturralde, Monumentuen Batzordeko kidea, arduratu zen *Oloritz kasuaz*: «Hainbat kezka sortu zait irakurritakoan, eta hitz batzuk aldatzea komenigarria dela iruditzen zait. Hala ere, nire ustez, Batzordea argiagoa izan daiteke eta izan behar du txostenean, eta Aldundiari gogotsu gomendatu behar dio lan hori». Nafarroaren historiaren hainbat garaitan Gaztelaren jarrera ez zen oso zuzena izan, eta Iturralde, kritikei erantzunez, errua errudunaren bizkar uztea eskatu zuen. Batzordekide guztiak bat etorriko zirela uste zuen. Eta halaxe izan zen. Monumentuen Batzordeak egindako azken txostenean «goraipatzeko modukotzat» jo zuen Oloritzen lana, «aberriarekiko maitasun garbiaren» epeltasunetik eta metodo argi eta didaktiko batekin idatzita zegoelako eta konbentzitu egiten zuelako.

Iturralderen irizpidea nagusitu zen eta, beraz, Monumentuen Batzordeak Aldundiari babes zezan gomendatu zion. Batzordearen txostenaren haritik, Iruñeko Udalak ikasle onenei, sari gisa, Oloritzen lana ematea erabaki zuen 1887ko abenduaren 17an.

Oloritzek herri zahar gerlari baten historia kontatzen du; inbaditzaile basatiak uxatu, gudarosteak urruneko mugetara eramanez eta erreinu boteretsuak sortu zituen eta kristautasunaren alde adonez borrokatu zuen herri baten historia, hain zuzen. 1521ean gelditu egin zen historia, urte hartan bat egin baitzuen Gaztelarekin. *Fundamento y defensa de los fueros* lanaren ildoari jarraitzen dio testuak. Goraipatzeko moduko pasarte eta kondairekin batera, Nafarroaren amaiera ekarri zuten «pasio endekatuak» ere badira Oloritzen laburpen historikoan. Egilea sinetsita zegoen baliagarriagoa zela «aberriaren erabateko porrota etorri baino lehen, haren gainbeheraren arrazoiak aztertzea, Historiak emandako irakaspenei jaramonik ez egitea baino»³³.

³² Polemikaren berri izateko, ikus Nafarroako Artxibategi Orokorra, Nafarroako Aldundiaren aktak, 110. liburua, 1887ko martxoaren 14ko saioa eta Kontuetako Ganberaren Artxibategia, Monumentuen Batzordea, 1887ko karpeta.

³³ OLÓRIZ, Hermilio de, *Resumen histórico del antiguo Reino de Navarra*, Iruña: Probintziako Inprimategia, V. Cantera arduradun, 1887, 5. or.

Aberriaren iragana argitzeko Yanguasek (Oloritz iritsi aurreko azken historialari ofiziala) kaleratutako obrari buruz Sánchez-Prietok egindako iruzkinean kronistaren gogoeta horiek berak jasota daude³⁴. Idazle tuterarrak, 1832ko kontakizunaren amaieran, Nafarroak Gaztelarekin bat egin zueneko jaso zuenean, garaiturik ez zela izan nabarmendu zuen. Agramondarrekiko eskuzabaltasunak eta foruekiko eta askatasunekiko begiruneak, Yanguasen hitzetan, «Gaztelarekiko maitasuna ekarri zuten, eta denboraren poderioz, indartu egin zen maitasun hura, gaztelarrek ere nafarrekiko sentitzen zutena». Sánchez-Prietoren ustez, «ipuinin amaiera zorionsua bezalakoa zen hura. Yanguasek prestatua zuen bidea. Itun berriari esker, ez zegoen ezeren beldur izan beharrik».

Oloritzen garaian dena aldatu zen, ordea. 1841eko ituna sinatu zutenetik 46 urte joanak ziren, eta bazegoen konfiantzarik ez izateko nahikoa arrazoi. Yanguasen iritziak, Fernando Katolikoak «gozotasun handiz» hartu zituen herriak eta, beraz, haiek ez zuten jabe aldatetik antzeman, eta Cisneros kardinalak Nafarroaren mesedetan eraitsi zituen gotorlekuak; Oloritzen ustez, ordea, Erreina independentziaren galera sentitzen hasi zen kardinalaren «neurri zapal-tzaileen» menpe.

Yanguasek ez bezala, Oloritzek penaz kontaktzen zituen nafarrek independentzia berreskuratzeko egindako ahalegin antzuak. Horregatik, bere liburuko azken hitzak Yanguasen hitzen oso bestelakoak ziren. Honako hau esan zuen tuterarrak:

Denboraren poderioz, sendotu egin zen Gaztelako monarkiarekiko nafar espainiarren maitasuna, eta antzinako haien leialtasun etengabea agerian utzi dute orduz geroztik; ordainetan, foruak beteko zituztela agindu diete orain arteko errege-erregina guztiek.

Eta honako hau idatzi zuen Oloritzek:

Orduz geroztik, Nafarroako Erreinuak ez du independentzia berreskuratzeko saiorik egin. Nafarroako errege-erreginen dinastia galdu egin zen, eta Espainiako gainerako estatuekin bat egin zuen arren, lurraldeari, jurisdikzioari eta legeei zegokienez, erreinu independentea izaten jarraitu zuen. Horixe dio Borboiko Isabel Gaztelako II.a eta Nafarroako I.a zenaren aurreko errege-erregina guztiek zin egindako foruak³⁵.

³⁴ SÁNCHEZ-PRieto, Juan María, «El ser de Navarra, entre la historia y la política», *Navarra y Europa, III Congreso General de Historia de Navarra*, Iruñea: Vianako Printzea Erakundea, 1998 (CDRom edizioa).

³⁵ Yanguas y Miranda, José, *Historia compendiada del Reino de Navarra*, Donostia: Ignacio Ramón Baroja, 1832, 414, 424 eta 436. or. eta Olóriz, Hermilio de, *Resumen histórico del antiguo Reino de Navarra*, 160 eta 163. or.

Oloritzen iritziz, aurreko 40 urteetako esperientzia ez zen Yanguasen Arkadia zorionsuaren omenez kantuan hasteko modukoa.

4.2. Fundamento y defensa de los fueros

Fundamento y defensa de los fueros 1880an argitaratu zuten. Lehen esan bezala, Oloritzen lehenengo prosa-lana eta, aldi berean, lehenengo lan historikoa izan zen. Kronista gazteak jaso berria zuen izendapena –agian, gerra amaierako garrantzi handiko momentu hartan, foru eraikinaren zimenduak jartzea helburu zuena– eta, dirudienez, nolabait justifikatu behar zuen hura.

Gaztaroko lana izan zen, eta kronistaren tonu kementsu eta sutua nabari da forman zein edukietan. Antonio Elortzak adierazi zuenez, Sabino Aranaren *Bizcaya por su independencia* lanaren «aurrekari zuzena» izan zen³⁶. Egileak Nafarroako historiaren azken bost mendeetako hainbat gertaera berreskuratu zituen ahanzturatik, ohar eta eranskin dokumentalak erabilita. Ez zen hura helburu bakarra: bere aberriarentzako politikarik egokiena aztertu nahi zuen. Politika horrek «politikaren buztinezko idoloa» suntsitzea zuen oinarri³⁷.

Azterlan historiko horren ondorio politikoak abertzaletasunaren aldeko azken deian daude laburbilduta: «euskaldun guztiek» foruen «arbola santuaren» inguruan bat egin behar zuten. Karlistek eta liberalek ikuspegi orokorra izan zezaten prestatutako aldezpidea da: forua eta hark politikari zekarkion onura sakrifikatu gabe, epe laburreko interesak gainditu behar zituzten haiek. Bat egin beharra zegoen, beraz, Leringo konde berri ez bihurtzeko³⁸.

Foruzaleen esaerak (*Ez karlista, ez liberal: denok foruzale*) presentzia du liburuan, garrantzi handiko bi une ardatz hartuta: Nafarroa Gaztelako Koroan sartu zenekoa eta Foruak Aldatzeko 1841eko Legea.

Erreinuak Erdi Aroko borroka fratrizidengatik galdu zuen independentzia eta galera horren oroimenak nafar guztien arteko batasuna ekarri behar zuen. 1512ko urte beldurgarri hartan aberria bat eginda egon izan balitz, ez zen «erauntsirik» etorriko. Gaztelak ez zuen Nafarroa garaitu. Esklabutzak politikan zuen jatorria. Izan ere, zatiketa, borroka eta herriek indarra eta ongizatea galtzea baino ez zekarren politikak. Politikarien hitzetan sinesten zutenek gogoan izan behar zuten gotorlekuak lurrera bota, lurrak eta herriak birrindu, herritarrak batetik bestera eraman eta beste hainbat ankerkeria ere egin zituzten garaia.

³⁶ ELORZA, Antonio, *Ideologías del nacionalismo vasco: 1876-1937*, Donostia: Haranburu, 61 or.

³⁷ OLÓRIZ, Hermilio de, *Fundamento y defensa de los fueros*, 3. or. Liburuaren helburuari buruzko informazioa nahi izanez gero, ikus Nafarroako Liburutegi Nagusiko alearen amaierako orri soltea.

³⁸ OLÓRIZ, Hermilio de, *Fundamento y defensa de los fueros*, 126 eta 128. or.

Nafarroa Gaztelan sartzeko ituna Fernando Katolikoak egin zuen «*tratu, lapurreta eta amarru*» bidez. Dena dela, hasieratik, ez zen itundutakoa errespetatu: Fernando erregeak, Gaztelako Kontseiluak eta Austriako dinastiak konpromisoari eraso egin zioten gorrotoarengatik, anbizioarengatik eta inbidiarengatik.

Fernando makiavelikoa ez zuen ideial handi batek mugiarazi: «batasun nazionalak» egoismoa, krimena eta patuaren apeta izan zituen oinarri (Oloritzek nabarmendu zuenez, Fernando Germana Foixekin ezkondu ondoren, biek seme-alabak izan balituzte, Gaztelaren eta Aragoiren arteko batasuna zapuztuko zatekeen).

Borboiak iritsitakoan, okerrera egin zuen egoerak. Dinastia berriaren helburu politikoa ez zen foruaren artikulua bat edo beste deuseztatzea, denak deuseztatzea baizik. Horixe dio Oloritzek Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako foruen oinarri historikoak aztertzeko XVIII. mende hasieran sortutako batzordearen harira.

Foruak –aldarrikatu zuen Oloritzek– ez ziren Gaztelako errege-erreginek askatasunez emandako emakidak edo pribilegioak, «itun irmo baten emaitza baizik». Gaztelan sartu aurretik, eta ondoren ere, Nafarroa «berezko erreinu izan zen, itun bidez erabat independentea eta espainiarra». Espainiako errege-erreginen gainerako lurraldeekin alderatuta, ezberdina zen lurraldeari, jurisdikzioari, legeei eta gobernuari zegokienez.

1512ko itunaren ondoren 1841ekoa etorri zen; bigarren hura ere zatiketaren ondorioz. 1840. urtean, foruak negoziatzeko ardua zuen Nafarroako batzordea Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ordezkariengandik bereizi zen –foruei osorik eusteko azken hauen helburua gehiegizkotzat jo zuten nafarrek– eta, beraz, Nafarroak onartu egin zituen gobernuak egindako aldaketak: «Desarmatzea eta eskuak eta oinak loturik Gaztelaren izaera menderatzailearen aurrean belaunikatzea esan nahi zuen hark». Horrez gainera, betiko zatiketa ekarriko zuen hazia ereinda zegoen, arabarrei, bizkaitarrei eta gipuzkoarrei beste akordio mota bat egitea ahalbidetu baitzieten. Hortaz, «lau eskualdeen interesen homogeneotasuna» apurtu egin zen.

1841eko ikasbidea 1512koaren antzekoa zen. Foruaren mesedetan, politikatik, Espainiako politikatik alegia, urrundu beharra zegoen, bereizketaren arrazoi baitzen: Espainiako borroka alderdikoietan esku hartzeak banaketa ekarri zien nafarrei, eta hura izan zen aberriaren betebeharrak betetzeko oztopo nagusia.

1841eko Legearen bidez eta erreinu zena probintzia bihurtuta, Nafarroak Gorteak galdu zituen, «askatasunean oinarritutako gure tradizioaren monumentu agurgarriak», alegia. Lehenago, 1812an, haien kontra egin zuen Cadizen elkartutako batzarrak. Oloritzen arabera, ordea, lege hura «itundua» zenez, nafar guz-

tiak egin behar zuten haren alde. Finean, 1841ean galdutakoa, foru araubidearen alderdirik «gorena» izanagatik ere, ez zen funtsezkoena. 1880an, araubide osoak jarraitzea ala ez zegoen jokoan.

Oloritzen iritziz, Gobernuak ez zion 1841eko Legeari eusten Nafarroari edo itunari begirunea zielako, komeni zitzaiolako baizik; izan ere, lege hori urratuz gero, «Nafarroak bat egingo luke arabar, bizkaitar eta gipuzkoarrekin». Hau da, «arabar, bizkaitar, gipuzkoarren eta nafarren arteko batasunarekiko» beldurak baino ez zion Nafarroari nolabaiteko oparotasuna izateko bidea ematen: arabar, bizkaitar eta gipuzkoarrek amore emanez gero, Nafarroaren askatasunak ere amaitu egingo ziren.

Oloritzek, etsipen handiz, «geure erakunde guztien gainbehera» etorriko zela iragarri zuen handik gutxira. Edo agian ez; beharbada, Nafarroak ez zituen bat-batean galduko askatasun guztiak, politikoki arriskutsua izan zitekeelako eta, beraz, pixkanaka gal zitezkeen.

Oloritzek, hura ikusita, 1839ko espiritua berreskuratzeko deia egin zuen, hari esker sinatu baitzuten 1841eko «itun berria». Orduko espirituak edo jarre-
rak ez zuen batasuna uniformetasunarekin nahasten eta ez zituen foruak batasun konstituzionalaren aurkakotzat jotzen. Hortaz, inork ezin zuen Lege Itundua aldatu eta are gutxiago baliogabetu, legelariak 1839ko urriaren 25eko Legearen *Monarkiaren batasun konstituzionalari kalterik egin gabe* klausula ulertu ez zutela argudiatuta. Baina beste garai bat zen hura. Ituna onartu zen arren, aurkari asko zituen; besteak beste, Cánovas del Castillo bera. Are gehiago, 1841ean inongo itunik ez zela izan zioten.

Batasun konstituzionalaren argudioa –edo, hobe esanda, batasun konstituzionalaren ideia jakin bat– azken askatasunak mozten ari zen. 1512an hasitako lana amaitzear zegoen. Kongresuak 1876an onartutako aurrekontuetako artikulua hura, Gobernuari Nafarroan Estatuko zerga orokorrak ezartzeko ahalmena ematen ziona, «triskantza» burutzeko eta «Euskal Herria itzalpean hartzeko eta zoriona ekarri zion arbola santua botatzeko» bidea zen, Oloritzen ustez³⁹.

Oloritz liberala izan zen betidanik, eta beraz, une hartan, aukera bakarra zuen: agintean ziren liberalengana jotzea eta indarraren gainetik arrazoiak eta inposizioaren gainetik eskubideek irabazi behar zutela eskatzea:

Baina, hemeretzigarren mendean edo Erdi Aroan bizi dira? Lau probintzia senideei arraza-zigorra ezarri nahi dietenak indarraren edo arrazoiaren garaian bizi dira? Erakundearen batasuna lortu nahi dute, eta probintzien artean erre-

³⁹ OLÓRIZ, Hermilio de, *Fundamento y defensa de los fueros*, 18-19, 24, 26-31, 37, 47-48, 58-60, 64, 66, 69, 84-87, 113-119 eta 123-128. or.

sumin latzak sortzen dituzte; liberal izena dute eta Filipe II.aren suntsipen bi-deari jarraitzen diote eta beste urkamendi batzuk egiten dituzte beste komunero batzuentzat, Euskariak poeta katalanarekin batere deiarar egin dezan: *Ai Gaztela!, Gaztela!...!... ez nuen halakorik espero!*»⁴⁰.

4.3. *La cuestión foral*

Oloritz oso kezkatuta zegoen Nafarroaren lozorroarekin, eta ez omen zegoen haren amaieraren zantzurik. Horregatik, Gamazada garaiko susperraldiarekin liluratuta gelditu zela adierazi zuen gertakari garrantzitsu hari buruzko kronika *ofizialean*. *La cuestión foral: reseña de los principales acontecimientos ocurridos desde mayo de 1893 á julio de 1894* liburuan, egun haietan Nafarroa astindu zuten gertakariak kontatu zituen urratsez urrats. Testu honetan ere Oloritzen eta bere ingurunearen unibertsoa ageri da.

Oloritzek hizki etzanaz idatzi zituen *kronista* eta antzeko hitzak, liburua Aldundiaren diskurtso ofiziala eta, beraz, Nafarroa osoarena zela nabarmendu nahian. Egia esan, Aldundiak eskatu zion liburua idazteko eta hura argitaratzeak esan nahi zuen foru agintaritza gorenaren oniritzia zuela. Aldi berean, 1893ra arteko gertakarien kontakizuna Gervasio Etaioren esku utzi izanak nolako zurrumurruak eragin zituen ikusita, pentsa daiteke Oloritzek bere lana Aldundiko kronistarena zela nabarmendu nahi izan zuela: lan egiteko pertsona egokienarena, hain zuzen ere. Eta beste interpretazio batzuk ere egin litezke: liburua *kronista gisa* idazteak nork bere burua mugatu beharra zekarren, adibidez, askeago idatziko baitzuen bestela. Hiru interpretazio –gehiago, beharbada–, eta bateragarriak, hirurak⁴¹.

Gertatutakoa kontatzerakoan, Gamazadak, historiak edo historiaren ikuspegiak funtsezko zeregina dute. Testuinguru horretan kokatu behar dira Oloritzen adierazpenak, bai jendetzak Erreinuaren Aretoan sartzerakoan zituen sentimenduak deskribatu zituenean (ekainaren 4ko manifestazioaren aurretik), bai manifestazioan parte hartzera etorritako batzordeen estandarteei buruz iruzkinak egin zituenean. Protestan erabilitako kateek «Nafar NAZIOA independentea» zen garaia eta Espainia Nafarroaren ahalegin heroikoari esker salbatu zenekoa gogorarazten zizkioten Oloritzi. Iraganeko loriek jasanezin bihurtzen zuten «une

⁴⁰ OLÓRIZ, Hermilio de, *Fundamento y defensa de los fueros*, 110 eta 111. or.

⁴¹ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral: reseña de los principales acontecimientos ocurridos desde mayo de 1893 á julio de 1894*, Iruñea: Probintziako Inprimategia, 1894. Gamazadaren mendeurrena zela-eta, bigarren edizioa argitaratu zuen Txalapartak 1994an Emilio Majueloren hitzaurrearekin. Hona hemen garai bereko beste bi liburuak: ETAYO, Gervasio, *Paz y Fueros o la manifestación fuerista de Navarra*, Iruñea: Probintziako Inprimategia, 1893 eta IRIBAS, Gregorio, *Los derechos de Navarra*, Iruñea: Probintziako Inprimategia, 1894.

hartako murrizketa» eta, aldi berean, saihestu ezinezko betebeharrak betetzea eskatzen zuten⁴².

Kronistaren arabera, 1512an nafarrek, beren «izen nazionalaren» ordeztu, espainiarrena hartu zuten; «Espainian sartzea» onartu zuten, ez baitziren jabetu horrek independentziaren galera ekarriko ziela, eta Espainia indartzen lagundu zuten berriro ere, Gaztelako Erreinuaren sorreran egin zuten bezala. Gaztelaren interesak beren egin zituzten nafarrek, eta lurraldea defendatu zuten; hori bai, odol asko isurita eta «legezko errege-erreginak» alde batera utzita.

Oloritz kexu zen Gaztela nafar haien ondorengoan aurka egiten ari zelako eta haien iragana ezabatu nahi zuelako. 1841ean itundutako autonomia zatia ere harrapatu zuen kodizia hark —«Erreinu independente baten bizitzaren hondar hutsala» zen autonomia hori, Oloritzen hitzetan. Belaunaldi hartako nafarrek foruek nolako etorkizuna izango zuten iragarri izan balute, itunik ez egitea, amore ez ematea eta aberri berri haren parte ez izatea erabakiko zuketean, porrot ikaragarria izateko arriskuan egonda ere⁴³.

Honela laburbildu zuen Oloritzek diskurtso historikoa: Nafarroaren iragan loriatsua; Gaztelarekin bat egitea, itun bidez, errespetatu beharrekoa, eta Nafarroaren jarrera zintzoa. Ondorioz, 1841eko Legearen *saria* jaso zuten, gero errespetatu ez zena⁴⁴.

Oloritzek jarrera profetikoa hartu zuen, indartsuagoak zirelakoan eskubi-deak mespretxatu eta tradizioak zapaltzen zituztenen aurka; independente izatea zer zen gogoan zuen herri bat menpean izan nahi zutenen kontra. «Neurri bidegabeak» erabilia hiru mendetan herri «senide» haiek batu zituzten lokarriak laxatu edo hautsiz gero, haiek izango zuten, eta beste inork ez, «arduragabekeriaren» errua. Herri haiek, elkarren artean hala adostuta, bandera bakarraren azpian babes hartzen zuten, baina hala ere, jatorri, izaera eta historia ezberdinak zituzten⁴⁵.

Tradizioaren katea hautsita zegoela ikusita, kronistak tristuraz ikusten zuen nola bere garaikideek ahaztua zuten iragana; Nafarroako foruzalatasuna lozorroan eta, agian, hilda zegoela ikusten zuen etsipenez. Gamazadak lozorro suizida hori eten zuen, «arraza harro eta independente» bati ez zegokion lozorroa, hain zuzen⁴⁶. Udalak eta, oro har, pertsonak inolako baldintzarik gabe aberriaren zerbitzura jartzen zirenean esnatzen zen Nafarroa. Hori agerian geratu zen, adibidez, herriek Aldundiari babesa adierazi ziotenean: «Nork daki

⁴² OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 55 eta 56. or.

⁴³ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 41-43 eta 110. or.

⁴⁴ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 97. or.

⁴⁵ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 5. or.

⁴⁶ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 7. or.

Jainkoak ez ote duen geure erakundeen aurkako irain hau erabili gu lozorrotik eta gure liskar politikoen burugabekeria txepeletatik esnatzeko!»⁴⁷.

1894an, Madrilerako bidaia egin ondoren, Aldundiak nolako harrera jaso zuen kontatu zuenean, Oloritzek, pozez gainezka, Nafarroa garai bateko bera zela esan zuen⁴⁸.

Liskar politikoen burugabekeria eta Nafarroaren lozorroa lotu zituen egi-leak, txanpon beraren bi aldeak zirela uste zuen eta. Gamazok nafarrak batzen asmatu zuen, denak iritzietan bat ez zetozen arren. Aipagarria da, halaber, Madrilgo protesta agiria neurtuta idatzi zuela, bestela jende askok ez zuela sinatuko uste zuen eta.

Zuhurtzia hura, jada, ez zen beharrezkoa. Arriskuaren aurrean bat egitea eta politika arloko desadostasunak alde batera uztea aldarrikatu zuen berriro ere Oloritzek⁴⁹. Aberriaren bandera goratzeko, bat egin eta desadostasun politikoak alde batera uztea zen irtenbidea⁵⁰, eta tokiko prentsan ere zabaldu beharra zegoen ideia hura. Gerora, tokiko prentsak funtsezko zeregina izan zuen⁵¹. Kaze-tarien eta komunikabideen zeregina ulertu zuen, beraz, Oloritzek.

Oloritzek Euskara Elkargoko lehendakari Estanislao Arantzadi lagunak, «Viva Gamazo» izenburupean, egunkarietara igorritako artikulua berri eman zuen; aberriaren batasunari eta susperraldiari buruzkoa zen artikulua hura⁵². Dena dela, foru kronikaren amaieran idatzi zuenez, penagarria izango zen susperraldia eta batasuna alferrikakoak izatea, «gure diputatuek iradoki zuten bezala». Ondorengoek gorazarre egingo zieten orduko ahaleginei eta sakrifizioei, haiei esker eutsiko baitzieten lehengoek oinordetzan utzitako «lege sakratuari».

Oloritzek tradizioa gorde nahi zuen, iragana, oraina eta etorkizuna lotzen zituen lege sakratua, Nafarroako armarriko kateen bidez adierazia. Kateak hori lortzeko bitartekoaren sinbolo ziren; batetik, «betiereko batasunaren lotura» erakusten zutelako eta, bestetik, «kateek ez digutelako trabarik egingo, badugu eta haiek hausteko behar adinako adore»⁵³.

Kronikaren diskurtsoa, *Madrilgo* protesta agiriaren antzekoa zen, nahiz eta, ahalik eta babes handiena lortze aldera, azkeneko hau leundu zuen⁵⁴. 1512an,

⁴⁷ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 22 eta 24. or.

⁴⁸ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 162. or.

⁴⁹ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 10. or.

⁵⁰ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 191. or.

⁵¹ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 10 eta 30-31. or.

⁵² *El Liberal Navarro*, 1893ko maiatzak 30. OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 191. or.

⁵³ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 57. or.

⁵⁴ *El Tradicionalista*, 1893ko ekainak 7 eta Nafarroako Gobernuaren Administrazio Artxibategia, Aldundia, Foruak, 1893-1894.

maltzurkeria bidez, bere monarkia desagertzen ikusi zuen herri bat ageri da bertan; herri horrek Espainiarekin bat egin zuen lurraldeari, jurisdikzioari eta legeei zegokienez erreinu independente gisa, «itun irmo» baten bidez. Espainiako monarkiaren zuzentasunari eta nafarren abertzaletasunari esker, errespetatu egin zen ituna.

Hala eta guztiz ere, 1841eko aldaketa garestia itundutakoan, Estatuko gobernuek ez zuten aski izan jokabide «eskuzabalegi» harekin, eta Nafarroak gorde ahal izan zituen eskubide apurrak murrizten jarraitu zuten. Madrilen bizi ziren nafarren eledunak «indarkeria erabiltzeko eskumen basatiaren» babespean egindako kontraforuak nabarmendu zituen, eta galdetu zuen ea bidegabekeria haietan oinarritu zezakeen ministro batek eraso gehiago egiteko eskubidea.

Eta –ziur aski, zeharka haren jarrera kritikatura– Nafarroako gizarteak «itunaren urraketa etengabeen» aurka gogor protesta egin gabe jarrai zezakeen galdetu zuen. Foruarekiko zintzotasuna eskatu zuen: Nafarroak beti bete zituen berari zegozkion konpromisoak eta, hortaz, urratutako eskubide guztiak berrezartzea eskatu behar zuen berehala.

Nabarmendu behar dugu Oloritzek jarrera leundu izanak bi arrazoi izan zitzaizkeela: batetik, bere ustez, egoerak berak eragindakoa izan zitekeela Gamazadaren garaiko nafarren batasuna eta, beharbada, hark ez zuela segidarik izango, eta bestetik, batasun horrek ez zuela esan nahi iritzi bakarra zegoenik foruen inguruan. Bere ikasketek eta izaerak jarrera irmoagoa izatea eskatzen zioten arren, bazekien berezko jarrera zintzo hori oztopo izango zela ahalik eta sinadura gehien biltzeko eta jendea mugiarazteko. Kontuan izan behar da, horrez gain, Madrilen bizi ziren nafarrak, besteak beste, kargu nagusietako politikariak eta bertan finkatutako familiak zirela –haien kideak ez ziren Nafarroan jaiok–. Horregatik, nafar guztiek onartuko zituzten gutxieneko adostasunak bilatzen ahalegindu zen.

Cartilla foral liburuan, Oloritzek bere pentsamenduaren ideia nagusiak azaldu zituen era eskematikoan⁵⁵. Hasiera-hasieratik, eta hortik aurrerako argudio guztien bidez, ondorio jakin batera iristen saiatu zen. Lehen galdera ondorengoa zen: «Nafarroa espainiar nazioaren parte izan al da beti?». Erantzuna: «ez». Argi dago, beraz, zein norabide zuen diskurtsoak. Bide horretatik, galderaz galdera eta erantzun batetik bestera, Nafarroako historia aletu zuen Oloritzek, foru araubidea azalduz eta 1841eko Legea onartuta Espainiaren mesedetan egindako sakrifizio guztiak deskribatuz. Beste alderdiaren esker onari buruzko galderari

⁵⁵ Antonio Pérez Goienak (*Ensayo de Bibliografía navarra*, IX, 780. or.) 1910 baino geroagoko bosgarren edizioaren berri ematen du. Lan honetarako, Aldundiak enkargatutako kronikaren eranskina gisa argitaratutako bertsioa erabili da.

erantzunez, Oloritzek zioen etengabe aritu zela lehendik murriztutako foruak are gehiago murrizten, nafarrak «egoistatzat hartuta» eta zenbakiak eta indarrak emandako eskubidean babes hartuta⁵⁶.

Atzera begiratuta, egoera horretara kontraforu batetik bestera iritsi zirela zioen Oloritzek. Ideia horretan oinarritu zen. Baita Nafarroaren izaerari, haren araubideari eta Gaztelarekiko harremanari buruzko bere planteamenduetan ere. Gobernuak 1841eko Legea hautsi zuenez, Nafarroak «lege hori deuseztatutzat eman zezakeen eta 1512ko itunean jasotako foruak erabiltzeko eskubidea izango zuen; eta Gorteak berpiztuko dira [...]»⁵⁷.

Lehen itunera, 1512. urtekora, atzera egiteak ez dakar Nafarroaren independentzia. Itzulera baten hasiera da, beldurra ematen duen bide baten hasiera. Izan ere, kronistak berak susmoa zuen gutxiengoaren bidea izango zela. Baina planteamendua sakona zen, etorkizunari begira aukera ugari eskaintzen zuena.

Oloritzen idatziek bere pentsamenduaren oinarritzko argudioak biltzen dituzte. Dena dela, obra osoan zentzuzko ezberdintasunak daude tonuari eta edukari dagokienez. Ez baita gauza bera Aldundiak eskatuta lan bat idaztea, Madrilgo nafar gehienak bilduko dituen protesta idatzi bat adosten saiatzea edo nork bere ideiekin zintzo jokatzeko beste konpromisorik izatea.

1880ko *Fundamento y defensa de los fueros* liburua, forma eta eduki aldetik, erradikalagoa da: lotura gutxiago duen idazle batena dela dirudi. Oloritzen hitzetan, Fernando Katolikoak «*tratu, lapurreta eta amarru*» bidez lortu zuen Nafarroa Gaztelara batzeko ituna. Ituna betetzeko konpromisoa hartu zuen arren, hura ez zen oztopo izan, hasieratik, gorrotoak, handinahiak eta inbidiak bultzatuta, agindutakoa ez betetzeko⁵⁸.

1893ko protestak beste gai bat ere jarri zuen mahai gainean: 1841era arte Espainiako errege-erreginek «zintzotasunez» errespetatu zituzten foruak. *Cartilla foral* liburuan, ordea, foruak «ia beti» errespetatu zituztela adierazi zuen. Eta kronikan, saihestu egin zuen gaia, nahiz eta Kanpionek Kongresuan egindako diskurtsoa jaso zuen: Kanpionek errege-erreginen «foruen kontrako absolutismo hipokrita eta maltzurra» kritikatu zuen, hain zuzen ere⁵⁹.

Ildo aldakor hori aldarrikapenen edukietan ere ageri da. *Madrilgo* protestan soil-soilik 1841eko Legea oso-osorik berrezartzea defendatu zuen. Kronista gisa idatzitako liburuan, ordea, *gutxienez* 1841eko Legeak osorik jarraitzea eskatu zuen arren, letra etzanez idatzitako *gutxienez* haren bidez, bat egin zuen

⁵⁶ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 195 eta 198-199. or.

⁵⁷ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 199. or.

⁵⁸ OLÓRIZ, Hermilio de, *Fundamento y defensa de los fueros*, 29 eta 47-48. or.

⁵⁹ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 122 eta 197. or.

1841eko ituna hautsizat eman eta 1512kora itzuli nahi zuen nafar herriaren jarrerarekin⁶⁰.

Lan honetan, gainera, harago joan nahi izan omen zuen. 1512ko nafarrek –idatzi zuen– ikusi izan balute etorkizunak zer zekarkien beren seme-alabei, itunik ez egitea erabakiko zuten, «aberri berriaren» parte ez izatea, alegia. «Neurri bidegabean» bidez bi herrien batasuna arriskuan jartzen zutenen «arduragabekeria» nabarmendu zuen Oloritzek. Sanz diputatu karlistak Kongresuan egindako diskurtsoko hitzak letra etzanez nabarmendu zituen. Sanzek adierazi zuenez, Nafarroak sekula ez zuen espainiar nazioa hautsiko, «*gobernu zentralak batasun nazionala arriskuan jarriko zuen arrazoirik eman ezean*». Eta antzeko asmoarekin laburbildu zituen diputatu nafar zaharrenaren hitzak, Los Arcos kontserba-tzailearenak⁶¹.

Tonu kritiko beraz baloratu zuen garai hartako politika. 1880an ez zuen zalantzarik egin politikarien jokoaren akatsak agerian uzteko. Aldundiaren kronikan, politikari profesionalek eskatutakoan, alegia, zuhurrago ibili zen. Eta Madrilgo protesta idatzian ez zuen ia aipatu ere egin gaia.

Batasunerako deietan politikako profesionalenganako mesfidantza jarrera utzi zuen agerian. «Politikako buztinezko idoloa» lurrera botatzea eta «foruen arbola santuaren inguruan» biltzea eskatu zuen. Politika orokorra erabiltzea eta Espainiako politikan parte hartzea gaitzestea, horixe izan zen Oloritzen ekarpen nagusia⁶².

Izan ere, politika orokorra trikimainaz eta amarruz josita zegoen eta nafarrei banaketa eta porrota besterik ez zien ekarriko. Politika orokorretik urrundu eta batasuna bilatu beharra zegoen nafar guztien topalekuan: foruetan. Horregatik, politikak aberriaren mugak izan behar zituen. Nafarroak behar-beharrezkoa zenean baino ez zuen Estatuaren atea jo behar: ate hori gehiegitan joz gero, Nafarroarekiko interesa sor zekiokkeen Espainiari.

Dena dela, soilik bat eginda atera behar zen jaioterritik. Izan ere, nor bere aldetik ateraz gero, lehendik murriztutako askatasunak are gehiago mugatzeko baliatuko luke munduak banaketa. Eta aberriaren banaketa errealitate tristea zen. Agian, onena etxean gelditzea zen, irrikatutako batasuna beste bideren batetik etorriko ote zen, zain.

Bat egiteko eta Espainiatik *urruntzeko* Oloritzen deia ez zen soilik nafarrei egindakoa: euskal-nafarren legeak eta ohiturak babesteko, herrialde bakoitzeko herritarren arteko batasuna eta lau herrialdeen artekoa defendatu eta, horretarako, Espainiako politikatik aldentzea proposatu zuen.

⁶⁰ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 25 eta 191. or.

⁶¹ OLÓRIZ, Hermilio de, *La cuestión foral*, 106. or.

⁶² OLÓRIZ, Hermilio de, *Fundamento y defensa de los fueros*, 3 eta 128. or.

Politika alde batera uzteko deia, finean, existitzen ez denaren edo aurkitu ezin denaren bilaketa da. Gamazadaren garaiko foruen aldeko leherketan gauzak egiteko modu berri baten zantzuak agertu ziren edo, gutxienez, aberriaren ikuspegia aldatu zen. *Liskar politikoen burugabekeriaren* ondorioz lozorroan zegoen aberriak begiak zabaldu zituen eta beraz, ikusteko zegoen etorkizunak zer ekarriko zuen.

Diskurtso ezberdina, Nafarroa ere ezberdina delako. Ez da gauza bera bizirik daudenei eta hildakoei hitz egitea; «aberriarenganako maitasunik sentitzen ez dutenak hildakoak baitira», zioen Kanpionek⁶³.

Kondairetan eta poemetan ere lan historikoetan jorratutako gai berak ageri dira. Zalantzaz betetako etorkizuna aztertuta eta iraganari ere erreparatuta, Nafarroa konkistatu nahi zutenei Oloritzek ohartarazi zien –xalotasun handiz, denborak gerora erakutsi zuen bezala– erreinuak borroka egingo zuela jatorrizko independentzia berreskuratzeke.

Etengabe agertzen dira kontzeptu horiek manifestazio probintzialerako idatzitako poemetan, ereserki foralaren hitzetan eta *Navarra Ilustradaren* azalean. Ezberdintasunak denboraren eta gizartearen unean uneko jarreraren arabekoak dira. Hasieran, Oloritzek iraganaz hitz egiten zuen Nafarroarekin. Gamazada garaian, mugiarazi eta borrokara bultzatu nahi zuen aberri horri begiratu zion. Lehen Nafarroa lozorrotik esnatu nahi zuen, historiari erreferentzia eginez. Orain, Nafarroari begiratu eta ez da lehengo bera... balentria handien Nafarroa da. Baina errealitateak etsipenean hondoratu zuen Oloritz zaharra; patuaren esku utzi beharra zuen aberriaren etorkizuna.

JOSÉ LUIS NIEVA ZARDOYA

⁶³ CAMPIÓN, Arturo, «D. Juan Iturralde y Suit», *Obras Completas*, XIV, 243. or.